

SARRERA

Guk aukeratutako produktua hainbat zerbitzu ezberdin eskaintzen dituen besaulki eta aulkiak dira. Bi motatako aulkiak eskaintzen ditugu, alde batetik, eskolako aulkiak (FormalBoxChair) eta egongelatako aulkiak (RoomChair). Gure produktuaren ezaugarri nagusia erosotasuna da, izan ere, hasiera batean aulki arrunta bat izan arren, honen azpian hainbat kajoia aurki ditzakegu. Kajoia hainbat gauza gordetzeko erabil ditzakegu aulki motaren arabera, hala nola, eskolako aulkietan liburuak, koadernoak, eta eskolako materiala gordetzeko aukera izango dugu. Bestalde, besaulkian irakurtzen ari garen liburua, egunkariak, mugikorra... gorde ahal izango dira nahi dugun momentuan eskura eduki ahal izateko. Gure produktuen materialak egokiak izango dira behar duten aktibitateerako, hau da, "FormalBoxChair"-en materiala ofizinarako eta eskolarako egokiak diren materialez osatuta egongo da eta "RoomChair"-en materialean bestalde erosotasuna eta kalitatea presente egongo dira.